



ARAMAKO UDALA
(GIPUZKOA)

TXAKURREN INGURUKO BANDOA

Araman ere beste hainbat herrietan bezala, gero eta txakur gehiago ibiltzen dira kalean. Euskal Autonomia Erkidegoan jabeek txakurrak edukitzeagatik dituzten betebeharrak horietako batzu gogoratzea da bando honen helburua.

101/2004 Legearen 2. Artikulua Jabearen edo edukitzailearen betebeharrak

Txakurren jabe edo edukitzailea behartuta daude animaliak identifikatuta edukitzera txip baten bidez.

101/2004 Legearen 4. Artikulua.- Jabearen edo edukitzailearen betebeharrak

2.- Hiri barruko bide eta gune publikoetan, bai eta eraikin kolektiboen gune komunean ere, txakurrak kontrolatuta eramango dira beraien ezaugarrietara egokitutako kate edo uhal bati lotuta —gehienez, 2 metrokoa—. Betebeharrak hori ez betetzea arau-hauste larria izango da animaliak babesteari buruzko Legearen 27.2 h) artikulua araberaren arabera.

3.- Debehatuta dago txakurren gorozkia bide eta plaza publikoetan, haur—parkeetan, lorategietan, eta oro har, apaindurarako eta/edo pertsonen pasadizorako den edozein lekutan uztea. Debeatu horri jaramonik ez egitea, arau-hauste larria izango da Hondakinei buruzko apirilaren 21eko 10/1998 Legearen 34.4.c) artikulua araberaren arabera.

Urriak 29ko 6/1993 Legearen 14. Artikulua Abandonatutako animaliak

Bazter utzitako animaliatzat joko da jatorriaren eta jabearen identifikaziorik ez daramana eta bakarrik dabilena, bai eta identifikaziorik eraman arren, jabeak edo arduradunak galdu egin dela jakinarazi ez duena ere.

Kode Zibilaren 1905. Artikulua ezartzen duena ere gogorarazi nahi da, non ezartzen den animalien edukitzailea dela animaliak sortzen dituen kalte, galera eta arazoaren erantzulea.

TXAKUR ARRISKUTSUAK 50/1999 Legea

Txakur arriskutsuak dituzten jabeen kasuan, derrigorrezkoa da responsabilitate zibileko aseguruia edukitzea. Txakur horiek lotuta eta arrazaren arabera dagokion muturreko homologatua jarriko zaio. Leku publikoetan pertsona bakoitzak ezin du horrelako txakur bat baino gehigorekin ibili. Gaiñera udaleko txakur arriskutsuen errejistroan inskribaturik egon behar dira eta txakur arriskutsua edukitzeko baimena soinean eraman beharko da beti.

Herriko gune publikoak, parkeak, lorategiak...biztanleek gozatzeko dira eta batez ere umeek, horregatik, animalien jabeek arduraz jokatzeko eta neurri hauek betetzera dei egiten diegu.

Arama, 2015 irailaren 10ean

Udala